

GIG 38

TXERTUDIKO GABARLEKUKO ITSASLABARRAK

BALIO INTRINTSEKOA: 3

BALIAGARRITASUN-MAILA: 3,38

KALTEBERATASUN-MAILA: 1

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Txertudiko Gabarlekua deritzon lekua morfologia malkartsu berezia da Geoparkeko kosta-lerroan. Izan ere, itsaslabarrak hemen ez dira berez altuera handikoak, baina bai lerrozuzenak, eta deigarri gertatzen da hori.

Kostaldeko zati honetan, flyscharen geruzek N120°E norabidea dute, gutxi gorabehera, eta 45°-ko okerdura ipar-ekialderantz, itsasaldera. Kostaldearen norabidea estratifikazioarekiko paraleloa da zati honetan, eta geruzetan gertatzen den higadura homogenea izatea eragiten du horrek. Geruzak modu uniformean erortzen direnez, izan ere, itsaslabarren atzera-egitea ere homogenea da, eta flyscharen estratifikazioak berak duen forma hartzen du kostaldeak, beraz: erabat kostalde lerrozuzena.

Geoparkeko beste leku batzuetan ere ikus daiteke fenomeno hori, baina hemen da nabarmenen, eta zabalgunea ere hemen da luzeen, 700 m ingurukoa baita alderik alde.

NOLA BERTARATU

Itxaspe kanpinetik *Sakoneta* ibilbidea hartu behar da, Itxaspeko begiratokiraino (IP S2).

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

Itxaspeko begiratokia eta Amabirjinabistakoa dira lekuri onenak; azken hori N-634 errepidean dago, Debako herrigunetik gertu. Itsasotik ere ederki ikusten da, eta Mendatagainako begiratokitik ere bai.



Itsaslabar lerrozuzenen ikuspegia; kostaldeak flyscharen geruzen estratifikazio-planoaren forma hartzen du.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 554131 m / Y= 4794299 m / Alt.= 1 m



Marearteko zabalgunea oso homogenea da itsaslabarren oinean.